


Xavier Rubert de Ventós

Trantsizio berria

Abertzaletasunaren inguruko gogoetak

Identitatetik independentziara



Identitatetik independentziara

Xavier Rubert de Ventós

Trantsizio berria

Abertzaletasunaren inguruko gogoetak

EDUKIAK

3 AURKEZPENA

Xabier Anza

7 IDENTITATETIK INDEPENDENTZIARA- TRANTSIZIO BERRIA

Xavier Rubert de Ventós

5 **Espainia maitatu**

6 **Espainia dibanean**

7 **Arrazoi taktikoak**

8 **Nazionalismoa, subjektua barik, objektua den aldetik**

8 **Teoria apur bat**

9 **Arazo biologikoa**

9 **Mittoa**

10 **“Legea”**

11 **Hiri kosmopolita**

11 **Nola dago Estatuak?**

12 **Estatuak ez du babesten**

14 **Indarkeriaren eta ongintzaren monopolioa**

14 **Baina estatuak ez ditu bere eginkizunak betetzen**

15 **Alda dezagun egoera**

16 **Neure jarrera nazionalista**

17 **Historiarekin bat etorri**

17 **Idea eta sentimenduetatik haratago**

18 **Peter Panen sindromea**

20 **Nahikaria baino, gauza nahiago**

21 IRAKURGAIK

✓ *Trantsizio berria*

✓ *Identitatetik independentziara*

✓ *Nazionalismoak: nortasunaren laberintoa*



Aurkezpena

Xabier Anza

Manu Robles-Arangiz Institutuak, argitalpen honen bidez, Xavier Rubert de Ventósek 2000ko azaroaren 15ean Donostian, ELAren X. Kongresu Konfederalaren aurretik izandako Konferentzia Zikloaren kariz, emandako hitzaldiaren transkripzioa helarazi nahi dizu.

Xavier Rubert de Ventós Bartzelonako Arkitektura Eskolako Estetika katedraduna da. Horrez gain, oso pertsona garrantzitsua da unibertsitate eta pentsamenduaren arloan: Harvardeko Unibertsitatean ibili da lanean, New Yorkeko Humanistika Institutuko kide fundatzaileetako da eta lan ugari egin ditu filosofia, etika eta estetikaren arloan. Lehenago, 80ko hamarkadako lehen urteetan, alderdi sozialistako parlamentarioa izan zen Madrilen eta Bruselan. Bere esperientzia politikoak eta hitzaldian azaltzen duen gertakari xume batek bultzatuta, nazionalismoen auziaren gainean pentsatzen eta zenbait obra argitaratzen eman zituen urte batzuk. Lan horren emaitza dira «El laberinto de la hispanidad», «Nacionalismo: el laberinto de la identidad» eta bere hirugarren liburua, «De la identidad a la independencia: la nueva transición», hitzaldi honen izenbururako hautatu dena. Lan honen amaieran obra horiei buruzko iruzkin labur batzuk eskainiko ditugu. Aipatutakoez gain, hainbat artikulua argitaratu ditu gaiaren inguruan egunkari zein aldizkarietan. Horietako batzuk Manu Robles-Arangiz Fundazioak beraren arestiko bisitaldiaren zioz argitaratutako lanean jaso ziren.

Rubert de Ventósen obra zabalaren helburua, berak dioenez, "sarritan erraietatik irteten zaiguna buruaz aztertzea da". Beraren azterketa heterodoxoa eta dirdiratsua da, eta ironia ukitu bat ere badu, unibertsalismo, zientzia edo ilustrazioaren izenean nazionalismoaren arrazoiak zartako batez ezabatu nahi dituztenen argudioak desegiteko asmoa duena.

Bere buruaz dioen legez, patuzko nazionalista da, ez sorburuz, ez helburuzkoa. Praxi politiko zehatzak eta estatuko indarrek Madrilen Kataluniako auziak tratatzen zuten moduak bere baitan sumatzen zuen nazionalismo "ahul", berezko eta hurko horren gaineko gogoeta sakona eragin zioten.

Agian, praxi politiko zehatza birpentsatu behar horixe dela-eta suertatu zitzaigun hain interesgarri Xavier Rubert de Ventósen ekarpena. Eta horrexegatik iritzi dio interesgarri Manu Robles-Arangiz Institutuak orrialde hauek ELAko militanteei helarazteari.

Geure lurraldean eta erakundean nazionalismoa sentitu, pentsatu eta praktikatzeko ohiko modu eta kontzeptuen ezberdinak diren beste batzuk aipatzea oso aberasgarri suertatu ahal zaigulakoan gaude.

Aurkezpen honi amaiera eman aurreko ezinbesteko bi ohar.

Fundazioak hiriburu guztietan antolatu nahi zuen hitzaldi hau, baina, egutegia beteegi zegoenez, Donostian eta Iruñean baino ezin izan zen egin. Horixe dugu hitzaldi hau argitaratzearen arrazoi gehigarrietakoa.

Azkenik, Xavier Rupert de Ventósek eskaini zigun komunikazioaren izaera dela eta, testu hau transkribatzean, hitzaldiaren tonua eta formarekiko ahalik eta fidelen izaten saiatu gara. Irakurleak ikusiko duenez, irakaskuntzan eta unibertsiteko jardunean oso ohikoak ez diren esakune asko daude, lagunarteko girokoak. Fundazioak bere gain hartzen du erabaki horren erantzukizuna, bere ustez, oraingoan behintzat, interpretatzeko erraztasunak zilegi egiten baitu formaltasunaz gehiegi ez arduratzea. Balio bezate hitz hauek, jakina, hizlariarengandik erru oro aldentzeko. Eta, era berean, irakurleak testua dagokion testuinguru eta helburuan kokatzen eta baloratzen jakitea espero dugu.

Bilbon, 2001eko otsailaren 1ean

Identitatetik independentziara: trantsizio berria

Xabier Rubert de Ventós

Ilusio handia egiten dit oso berezia iruditzen zaidan sindikatu honekin egoteak. Euskadiri eta ELAri buruz, eguneroko prentsan irakurtzen duguna dakigu. Batzuetan ELAk inork espero ez dituen gauzak esaten ditu, eta ez zaio ulertzen. Argi dago, ematen diguten informazioa ez da nahikoa. Horrexek eragin dit niri zuekin egoteko interes berezi hau.

Hitzaldiari hasiera emateko, zerbait pertsonal aipatuko dut eta, ondoren, teoria pixka batekin segituko dut. Sentitzen dut, horixe da nire lana. Amaieran neure herriari eta zeuenari buruzko gauza zehatzak esaten saiatuko naiz: pentsatzen dudana, sentitzen dudana, uste dudana, dakidana...

Espainia maitatu

Duela astebete luze Jon Juaristi eta Antonio Elorzarekin izan nintzen Ohion.

Kongresuaren antolatzaileek elkarrekin jarri gintuzten. Ziurrenik haxe esan zuten: zer ondo, elkartu egingo ditugu horiek, ea zer gertatzen den! Eta izugarria izan zen, bai, mundu guztia nire kontra zegoelako...

Argudio pertsonalak, sentimentalak, erabili zituzten eta harrিতuta eta kezkatuta geratu nintzen, nik ez dakidalako hitzezko bortizke-

riari edo begirada oldarkorrei aurre egiten. Oldarkortasun horrek ezinegona sortzen dit.

Orduan ironiaz baliatu nintzen, euskaratu dizueten artikulu horretan “Espainia maitatu-Querer a España”, El País egunkarian argitaratu zen horretan erabili nuen antzera. Haxe esan nien: “gakoa Espainia maitatzea da; izan ere, ni oso espainolista bainaz”. Zur eta lur geratu ziren eta, geroago, sumindurik.

Espainolista izateko kondizioetan egon nahi nuela esaten nien nik. “Nor bait maitatzeko, bi pertsona izan behar dira, bestela masturbazioa edo nartzisismoa izango litzateke eta”. Eta honela segitu nuen: “Kataluniak erabakimena duen egunean, ziur aski espainolista izango naiz; solidario izateko aukera nahi dut, soldaturik egotekoa baino.

Soldaturik banago, ezin naiz solidario izan. Hautatzeko bezain autonomo izan nahi dut, eta horrela, seguraski, ni Espainiaren alde agertuko nintzateke maizago”. Adibidez, nahiago nuke itunak Espainiarekin egin, Frantziarekin baino. Izan ere, katalanok oso oroipen txarra dugu frantsesei buruz.

Jakina, esaten nien nik, “espainolista izango nintzateke, bi garen egunean, elkar besarkatu ahal dugunean. Oraingoz ezin dugu

elkar besarkatu". Hori Pascual Maragallek ere esan zuen behin, aspaldi: "¡Benoa, katalanak espainolistak gara hori izateko ordaintzen dugulako!". Granadako batek espainiar izateagatik kobratzen du, baina katalanak, hain zuzen, espainiar izateko ordaintzen du. Geure espainolismoa, ordainduz erakusten dugu geuk.

Argudio horiek ez ziren Elorza eta Juaristiren gustukoak izan. Horiek ez zuten "maite ditudanik" entzun nahi, "espainiarra naizela" baizik. "Ez naizelako maite zaituztet" esaten nien nik. Eta haiek: "ez, zu bazara, izan behar duzu". Mauriac-en esaldi bat ekarri zidan horrek gogora, geroago erabili nuena: "Hain gogoko dut nik Alemania, hain gogoko, ezen bi egotea nahi baitut". Noski, bera frantsesa zen eta Alemania betiko zatiturik eta hemipleigiko egotea nahi zuen, ahulagoa izan zedin. Antzeko zerbaite esaten nien: "Begira, hain biziki maite dut



nik Espainia Espainiatik, ezen kanpoan egon nahi baitut, bizikiago maitatzeko. Kanpoan egon barik, ez daukat paradarik". Zalaparta itzela sortu zen, imajina dezakezuenez.

"Maite dut Espainia eta ulertu egin nahi dut". Hori esatean, alde batetik, arrazoi errealak nituen gogoan, une honetan, esaterako, gaztelania lingua franca erabiltzen ari garenez gero. Bogotara joan eta jendearekin mintzatzen naizenean, nolabaiteko konplizitatea lortzen dut, gaztelaniari esker. Gaztelaniazko literatura kristorena da, emari oparoa... Neure esker ona adierazi behar diot. Baina, hala ere, uste dut nahiko ahalt-suak izan behar dugula jadanik, gure herria zapaltzeko tresna izan dena maitatu ahal badugu.

Espainia dibanean

Ildo horretan, maite dituzula eta ulertu nahi dituzula esatea, hori berez jadanik, erresumindurik ez bizitzeko bezain indartsu zaudela erakustea da. Are gehiago, nolabait, ekintza matxista dela esan genezake, botere-erakuslea, harrokeriazkoa. Katalan askok, ez dakit euskal herritar askok ere, "ez gaituzte ulertzen..." behin eta berriz errepikatuzeko okerra egin izan dute; orduan, Madrilgoa etorri eta "ea, nik ulertu egin nahi zaitut" esaten zuen... Progresistak dira horiek: "nik ulertu egin nahi zaituzte, bai, noski".

Orduan, katalanak azalpenetan hasten ziren, hizkuntza bat dugula, eta ez dakit zer eta badakit zer... Izugarri larritzen nintzen ni horrekin, katalana, automatikoki, psikoanalizatuaren dibanean jesartzen zela ikustean.

Eta espainiarrek bitartean: “ea, kontaidazu, kontaidazu zeure arazoa”. Ez, aizu! Benetan egin behar dena Espainia dibanean jarri eta bera ulertzen saiatzea da. Ulertzen duena da ahaltsua, azalpenak ematen dituen ez bezala.

Espainia ulertu eta maitatzeko tenorean jarri behar gara, bai horixe. Aski dugu haiek “ulertu” eta gu “ulertuak izateaz”.

“Katalanak oso atseginak dira eta oso gogoko ditut”, “Katalana da, baina atsegina”.

Onartezina da: neuk esan behar dut “espainiarra zara, zoragarria zara; Madrilera joan nahi nuke, Bartzelona baino politagoa delako”. Neuk izan nahi dut jarrera paternalista, haiek gurekiko izatea beharrean. Kexu azaltzen naizenean ahularen jarrera agertzen dut eta kexaz neure ahultasuna erakusten dut. Haien onespina eskatuz, beraien nagusitasuna onartzen dut.

Jakina, Elorzak eta Juaristik ez zuten batere ondo hartu harrokeria hori eta hitzaldia anabasan amaitu zen.

Arrazoi taktikoak

Arrazoi teknikoak ere badaude, horrela jokatzeko. Nire ustez, une honetan nazionalisten diskurtsoak ustekabeen harrapatzen ditu espainolistak. Oraintxe azalduko dut.

Neure buruaz hasiko naiz. Ni ez naiz nazionalista jatorriz. Nire familia ez da, eta sekula ez naiz ezein alderdi nazionalistatako militante izan. Beno, PSOCen ibili nintzen... geroago jakin nuen nazionalista zena, baina Francoren garaian ez zen izan. Patuzko nazionalista naiz.

Nire grinarik handiena nazionalista izateari uztea da; emakume normal orok, nik uste, feminista izan beharra ez izatea amesten duen bezala... Hobe nazionalista izan beharrik ez balego! Ez deritzat ondo feminismoa eta nazionalismoa maitatzeari, horrek, gauza baino, kexua nahiago dugula adierazten duelako; deitorea nahiago, helburua baino.

Ohion hori esan eta Juaristi eta Elorza hase-rreru egin ziren azkenik. Hau ere esan nien: “izan ere, ni inoiz ez naiz ez komunista, ez jesuita izan”. Noski, haiek bai izan ziren aipatu horietakoak, antza denez. Baina nik asmo txarrik gabe esan nuen, ez nekielako. Sumindu egin ziren. Ikastetxeko jesuita batek hau esan ohi zidan: “zu ona zara Javier, baina zeure barren-barrenean igartzen dudan beste Javier hori, horixe bai da ona: Javier horrek azaleratu behar du”. Berak barrenean neukan Javier hura nahi zuen. Norbaitek barreneko nire Javier hori nahi zuela sumatzen nuenean, honela esaten nion: “ez, begira, maita ezazu azalekoa edo gera zaitez bera gabe. Ez hasi orain benetako nia asmatu nahian, edo benetako Euskadi edo Katalunia...; baina lapur, burges, koldar eta itun zale hutsak zaretenez...” Ez. Neure herria den berori da, eta ez aipatu niri gizalegezkoa normala izateko, engainaturik ez egoteko, ergela ez izateko, jendeak pentsatu beharko lukeenik. Alde horretatik, ez dut neure herria baino hobe, ez beste inor baino hobe izan nahi. Eta alde berorretatik, sekula ez nintzateke ausartuko ez independentista, ez nazionalista ez den “ergel” gehiengoari neure iritziak inposatzen.

Beraz, esan dudanez, nirea ez da ez jatorrizko, ez helburuzko nazionalismoa, patuzkoa baizik. Lehendik horrelako jarreretik inola-ko prestutasunik izan gabe eta Ramon Jauregiren taldeko jendearekin kartzelan egonik, ez genuen nazionalismoarekiko inolako atxikimendurik sentitzen. Bai berezkoa eta familiarra, orokorrean, baina ez politikoa.

Nazionalismoa, subjektu barik, objektu den aldetik

Baina, apurka-apurka nazionalista izan beste biderik ez nuela ulertu nuen. Madrilen eta Europako Parlamentuan egon bitartean, ulertuz joan nintzen. Euskal herritarren edo katalanen ikuspuntuan jarrita, politikaren objektu sentitzen nintzen, subjektu sentitu beharrean. Kataluniako arazoren bat tratatzen zenean (telebista, adibidez), hauxe zekaten espainiarrek gogoan: “ea nola limurtzen ditugun, ea nola lortzen dugun ituna, ea nola pozten ditugun, ea nola izorratzen ditugun...”. Konpondu, itundu, disimulatu, limurtu eta ginetik kendu beharreko arazo gisa ikusi nuen neure burua; Ortegak zioen bezala, “atseden hartzeko ohantzea bilatu behar zaio...”.

Baina, batez ere, Alderdi Sozialistan nenbילהla konturatu nintzen, hau entzutean: “Begira nola eman diogun popatik Miquel Rocari”. Hori Gorteetako komun batean esan zidan Joaquin Almuniak, hain zuzen ere: “Begira, begira, Miguel Roca garraioak eskatzen ari da; haiei utzi dizkiegu trenbide guztiak, horiek baitira garestienak, eta geltokiekin geratu gara geu. Izorratu egin ditugu eta ez dira konturatu!”. Noski, Almunia

katalan batekin ari zen, neurekin, baina PSOEko sozialista nintzenez, niretzat ere katalanak izorratzea, zalantzarik gabe, gauza ona zelakoan zegoen.

Hortaz, argi ikusi nuen negoziatu, itundu, ginetik kendu eta disimulatu beharreko arazotzat hartzen gaituztena. Orduan objektu sentitzen hasi nintzen, subjektu orde. Subjektu barik objektu sentitzen zarenean, bere jabetzakoa zaituen subjektibotasunen bat badagoela eta haiena ez dela pentsatzen duzu. Beraz, Madril eta Europan benetako politikarekiko elkarbizitzan emandako hamar urteen ondoren iritsi nintzen oraingo egoerara. Orain ezertarako ere ez nabil politikan.

Teoria apur bat

Oraingoan ikuspegi teorikoz mintzatuko naiz nazionalismotzat hartzen dudanari eta, nire iritziz, Estatuak gaur duen egoerari buruz. Identitateaz baino, independentziaz hitz egin beharra ere azalduko dut, bai eta hasierako arrazoiak eta arrazoi taktikoak zeintzuk diren ere. Nire ustez, hori da egokiena. Barkatu beharko didazue abstraktu samar jartzen banaiz.

Jende askok bere nazionalismoa justifikatu beharra sentitzen du: “Ez, nirea ez da nazionalismo etnikoa, ez biologikoa, ez odolaren Rh-koa ere”. Bada, nire ustez, bai; bai, nazionalismoa arazo biologiko eta arazo antropologiko batez hasten dena behintzat: arazo nazional eta arazo historiko batez. Ez dugu zertan errealitate hori ezkutatatu. Nire ikuspuntutik nazionalismoak ditenez izari horietako bakoitzaren adibide bat jarri-

ko du. Biologikotik hasiko naiz, lotsa izpirik gabe.

Arazo biologikoa

Giza espeziea planetako guztietan ezgaiena, ergelena da, hazteko denbora luzeena behar duena. Horri antropologo eta etnologoek "bizargabetasuna" deritzate. Gure espezieak besteek baino askoz nerabezaro edo "ezgaitasun"aldi luzeagoa du. Txita arrautzatik irten eta oinez hasten da, baina umea are denbora luzeagoan izango da izaki babesgabea. Biologo darwindarrek eman zuten giza espeziearen ezaugarri horren azalpena: ikusi zutenez, zenbat eta denbora luzeago mantendu kumeak bizargabe, orduan eta eboluzionatuago zeuden, aro hori malgutasun handikoa delako. Espezie batek zenbat eta luzaroago mantendu bere kumea ezgaitasun egoera horretan (erromatarren "imbecilitas" hitzaren zentzuaz), orduan eta aukera handiagoa dago kultur transmisiorako, hots, "meme" deritzanen transmisiorako, geneena ez ezik.

Hala ere, aurrerapen horien kostuetako bat kidesun sena izugarri areagotu izana da. Luzaroan ezgai bagara, beste edozein espezieri baino are zantzu nabarmenagoa uzten digu talde bateko kide izateak. Alde horretatik, berez datorkigu identitatearen eta kidesun tribal zein nazionalaren sena; horri esker eboluzionatzen du espezieak eta horri esker gara gizaki. Giza espeziearen eboluzioa oso motela da hazkuntzari dagokionez, baina, era berean, beste espezieek baino sendoago dute kidesun sena, arrazoi biologiko soilengatik.



Mitoa

Ezin dela biologiaz mintzatu eta Arzalluzek Rh-ari buruz ez-dakit-zer esan duelako barre batzuk egin behar direla? Bale, ba. Has gaitetzen biologiatik, bai eta mitologiatik ere. Mitoak talde identitatearenak edo Jainkoarena edo nahi denarena kontatu zaigun ez bezala azaltzen dira. Ikastetxean kontatzen zigutenez, hasieran mitoak zeuden eta geroago pentsamendua azaldu zen, logosa. Bada, ez; aldrebes gertatu zen, hain juxtu: pentsamendua agertu zen eta giza espeziea oso arriskutsu bihurtu zen, animalien senezko elkartasuna ez zuelako.

Sena solidarioa da (inurritegietan, termitategietan... senezko lankidetzat dago). Baina banako adimena agertu zenean, gizabanakoa bakarrik sentitu zen, hilko zela jakin zuen eta izutu egin zen; oldarkortasuna eta borroka azaldu ziren. Ezein animaliak ez du beharrik gabe hiltzen; guk, aitzitik, sarritan

egiten dugu... Kontzientzia hori agertu zenean, elkarbizitza arazoak sortu ziren eta, orduan, jatorri beraren eta kidesaren mitoak sortu behar izan ziren, jendeak elkar hil ez zezan.

Mitologia guztiek berdin kristau, budista zein euskaldunenak izan dute eginkizun bat. Geroago jendeak mito horiengatik borrokatzen hasi eta beste bortizkeri mota bat sortu zen, egungo erlijio borrokak kasu. Baina hasieran, galduta zegoen sena giza-kiak irabazitako autonomia ordeztzeko xedea izan zuten guztiek, gizakiak elkarrekin bizi zitezten eta elkar hil ez zezaten ahalbidetuko zuten kidesaren kolektiboak bilatzeko beharrezan funtsaturik. Hori ere, beraz, giza izaeran oinarritutakoa da, musulman, euskaldun edo besteren baten atabismoak alde batera utzita.

"Legea"

Zio arrazional batzuk ere badaude, azaltzen luzeegiak lirakeenak. Liburu bat idatzi nuen horien gainean, norberari hormonien eraginez gertatzen zaiona neuronez azaltzekotan. Taula bat egin nuen, matrize bat, edozein lurralde, herrialde edo estatutako herriak (sahararrak, kurduak, argentinarak...) banan-banan aztertzeko modua erakusteko. Nik honako alderdi hauei erreparatzen nien:

- kultur konplizitate mailari
- lurralde koherentziari
- XVII. mendean izandako modernizazioari, Max Weber-en ildotik (modernizazioa: hirien, merkataritzaren eta abarren agerrera)

- bertan estaturik eratu den

Eraketa A, B, C, D, edo D, B... zen arabera, lurralde horretako integrismo maila aurreikusi ahal genuen. Eta Euskadiri ere aplikatua nion hein batean ezjakintasun handiz, aitortu behar dut, bai eta Kataluniari ere.

Pasadizo bat kontatuko dizuet

Frantziar erbesteren izan nintzenez, neska batekin bizi izan nintzen luzaroan, bere aita amorrarazteko-edo FLNko militar algeriar batekin ezkondu egondakoa. "Frantsesak hiltzen zituztenetakoa" zen "terrorista" nazionalista edo independentistetakoa, alegia. Neska hara joan zen bizitzera. Nik eza-gutu nuenean, ez zen jadanik Algeriar bizi. Zer gertatu zen? "Bada, nire senarrak armak erosi behar zituen Suitzan...". Eta, dirudienez, diru kopururen bat beretzat gorde zuen eta FLNk exekutatu egin zuen bere etxe aurrean bertan, ustelkeriagatik. Eta zera esan nion nik:

- zenbat denboraz bizi izan zinen berarekin? Zeren zu, horren neska "super" izanik, superingelesa, superoxfordiarra... Algeriako etxean..."
- "Hiru urte".
- "Eta nola...? Zer egiten zenuen?"
- "Bada, begira, bera ia inoiz ez zen etxean egoten; neu egoten nintzen han, bera gauzez etortzen zen, jotzen ninduen..."
- "Zer?"
- "Bai, jo egiten ninduen".

Txistekoa ematen zuen: "etxera iristean, jo zeure emaztea, berak jakin egingo du-eta

zergatik" ... Algeriarrak hainbat gauzarengatik jotzen zuen. Batean, auzoko emakumearekin hitz egin zuela esan ziotelako, edo ur bila, iturrira beharrean, urrunago joan zelako, lagun zuen neska bat ikusteko... Beste batzuek esan eta berak jo egiten zuen orduan. Niri, neska ikusita, ulertzen zaila suertatzen zitzaidan... nola ulertu behar da hori? Eta hau galdetu nion: "eta zergatik ez zenuen lehenago alde egin? Esan nahi didazu hil izan ez balute, oraindik etxe hartan segituko zenuela, gaueroko ostikoak jasaten?". Eta berak: "onartua nuen beraren legea, Javier".

Jakina. Berehala ohartu nintzen lurrik ez duen juduarentzat, duen lur bakarra, aldean eraman dezakeen aberri bakarra, Biblia dela... Horregatik legea egundoko kontua da. Nik ez, nik badut lurra eta jakin badakit legea pobreak azpitik igarotzen saiatzen diren zerbait dela, aberatsek gainetik igarotzen dutena, hain zuzen ere. Eta horrela igaro ezin dutenak, zeharkatuz pasatzen dira. Legea bete ala urratu egiten da, edo urratzen saiatu, behintzat. Baina lurrik ez duenarentzat, legea askoz garrantzitsuagoa da, funtzio batzuk betetzen baititu: aldean eraman daitekeen aberriaren ideia da.

Lege hitzak aberri hitzarenaren antzeko tamaina hartzen du. Ingalaterran, lau l-er buruzko hitzaldi bat eman nuen: "law, language, land and Lord" (legea, hizkuntza, lurra eta Jainkoa). Herriei koherentzia eman dieten lau legeak dira horiek. Lurralde kolonial batzuk lau lege horien koherentzia baster utzirik zatitu ziren eta, horren ordez, batzuetan legea, beste batzuetan Jainkoa eta besteetan lurraldea edo hizkuntza gerat-

zen zen. Eta, noski, den-dena izozturik mantendu zuen gerra hotza amaitu zenean, gauzek, herriek, euren lekura, euren koherentziara (lege, hizkuntza, lurralde edo erlijiozkora) itzuli nahi izan zuten. Orduantxe sortu ziren egun azaldu diren "fundamentalismo" horiek.

Hiri kosmopolita

Nola eratzen da hiri kosmopolita, tribu eta sentimenduetan oinarriturik? Eskiloren obra irakurri beharko genuke. Amaieran Atenearen mintzaldia dator. Atenea hiriko jainkosa da. Jainkosek mendekuaren legeak (vendettak) segi dezan eskatzen dute. "Zuk aita hil badidazu, nik ... hil behar dut".

Erne! Atenea begirunez saiatzen da kidetasun sentimenduak gizalegezko eta hiritartasunezko sentimendu bihurtzen. Berak, ilustratu argelak ez bezala, ez du esaten "mundu hau jende erlijioso, erreazionario eta aurreiritziz beterikoarena da... argia eta egia aurrerakuntzan eta zientzian dautza". Ez, greziarrak ez ziren ilustratuak, greziarrak greziar ziren, eta ilustratuak, bada, beno, jadanik ari gara ikusten zer diren.

Nazionalista izatea ez dagoela zaharkiturik, normala dela, azaldu nahi diot "oso jakintsua" den bati; eurak ere nazionalista direla...

Nola dago Estatu?

Estatuaren egoerari eta Estatuaren izaerari erreparatu nahi diet. Abstraktu samar segituko dut, zuen baimenaz.

Nire iritziz, Estatu sekula izan den mitorik handiena da, mito itzela, Kristo zein

Budarekin lehiatzeko modukoa izateaz gain, beste maila bat ere ukitzen duena. Zergatik da horren gogorra mito hori? Lehenbizi, sustrai bikoitz ezin-arriskutsuagoa duelako.

Estatua sutautsaren antzekoa da. Gezurra dirudi jende gehiago konturatu ez izanak. Estatuak, Estatu deritzagunak, bi sustrai ditu; ezin esan bietako bat ere oso txarra denik, baina sutautsarekin bezala gertatzen da haiekin ere: sufrea eta ikatza kaltegabeak dira berez, baina, elkartuz gero, leher egiten dute. Estatuaren osagaiak ez dira hilgariak, bai, ordea, haien nahasketa.

Tradizio erromatarretako bat lurralde unibertsalismoa da. Ni ez naiz erromatar, ez nabil lekuak okupatzen, errepide, zubi eta akueduktuak eraikitzen, edo gaiztoak akabatzen... Baina, hori bai, aurkituz noan jainkoak, printzipioak, ideologiak eta idiosinkrasia integratuz noa... "Baduzu jainkorik? Ba ekarri etxera eta horrela beste bat izango dugu". Kapitolioan jainkoen leku bat zegoen. "Nik, erromatar naizen aldetik, ez ditut ideologiak onartzen, eta hemen duzu zuzenbide zibila. Nik errepideak ipiniko dizkizut eta zuk lurralde menpekotasuna onartu. Aurrerantzean, Isis, Osiris nahiz Lourdeseko Ama Birjina gurtzen segi dezakezue, niri bost. Are gehiago, Lourdeseko Ama Birjina hartu eta neure jainkoen artean ipiniko dut, begira". Lurralde unibertsalismoa da, unibertsalismo ideologiko barik.

Kristautasuna agertzean, kontrakoa gertatzen da. Hauxe dio kristauak: "Nik ez dut lurralde boterean esku hartzen.


Unibertsaltasunari dagokionez, nire Jainkoa jeloskorra da, ezin da beste ezein jainkoren ondoan egon; Jainko bakarra da, benetako

Jainkoa". Kristautasuna, beraz, unibertsalismo ideologikoa da, lurralde unibertsalismo barik.

Estatuaren izaera hedakorra eta kristautasunaren izaera ideologikoa batzean, Erromak eta kristauteriak lurralde zehatz batean elkartzean, lurralde hori mezu unibertsalaren eroale sentitzen eta bihurtzen da. Izorra hadi! Errege-Erregina Katolikoentzat katolizismoa da mezu hori, Hitlerrentzat nazismoa, eta auskalo zer beste batentzat; bert-sio asko egon daitezke, esaterako, berdintasuna komunistarentzat... Baina Errusiatik bertatik aldaraziko dugu mundua, edo Frantziatik bertatik arinduko ditugu munduaren oinazeak, edo Espainiatik bertatik jagongo dugu mundua protestantismoaren mehatxutik aske... Horixe izan da bereziki estatu handien joera, lurralde mailako jomugei argudio unibertsalistak eranstekoa, alegia.

Estatuak ez du babesten

Partikularismo eta unibertsalismoaren eraginez, Europa etengabeko gerra zibilean bizi izan da. Batzuen esanetan "Estatuak babestu egiten du...". Baina-baina... entzun, mesedez: XVII. mendetik hona estatuen eraketa gerra zibil hutsa izan da. Estatu bakoitzak bere mezu unibertsala zekarren, baina berak ekarri behar. Hortaz, estatua oso tresna arriskutsua da, lehergarria... Hauxe da beraren sorburua. Kontua ez da zer den ona eta zer txarra esatea: hau benetan gertatzen da. Lurralde unibertsalismo erromatarra eta unibertsalismo espiritual kristaua elkartuta sortzen den horrek lehertzeko



joera izango du ezinbestez, hots, auzokoa izorratzeko joera.

Esan bezala, estatuak bere arriskugarritasuna bere hilgarritasuna azaltzen duen sorburu bikoitza du. Baina, gainera, eginkizun bikoitza ere badu: herrialdea barrurantz homogenotu eta gainerako herrialdeen buruzagia izan. Estatuak, eratzen den unetik, erlijioa, hizkuntza eta beste edozer ere batzen ahalegintzen da. Fabrikazio nazionalak ez dira aurrekontuetan azaltzen, baina... Nebrijak Errege-Erregina Katolikoei esan bezala: "Erabil ditzakezuen arma guztiak baino baliagarriagoa izango zaizue espainiera". Eta balio izan zuen, zinez.

Jende ezberdina homogenotzea lortu behar da, jende hori oraindik "primitiboa", tribala, delako... Sinesmen arrazionalak aurkeztu behar dira, bat egingo gaituen zientzia. Aurrerakuntza atzerapenaren aldean, primitiboaren aldean, arkaikoaren aldean. Eginkizun bikoitza, batetik, barruko paisaia homogenotzean datza, hizkuntza, erlijioa eta beste edozer batzean, alegia, eta bestetik, kanporantz hedatzean, Estatu orori interesatzen zaiolako besteak zatikatzea.

Eta badakizue, Yalta edo Versailles gogoan duzuenok, Balkanetan zer gertatu zen. Mundua zatitu egin zen, "tapoi estatu" edo "gortina estatu" deritzan bat, hots, beste baten etsai den estatu bat, utziz. Ingalaterraren politika, betidanik, kanpoko zatikatzean funtsatu da; hots, barrukoa batu eta kanpoan bideragarri ez diren unitateak eratzean ingelesak espezialak izan dira horretan. Eta kolonialismoaz, zer esan?. Afrikako mapari begiratu eta Mondriaan-en koadro baten aurrean gaudela ematen du. Bai zuzenak ibaiak, herrialde horretan eta hartan! Benetan zuzenak lerroak, zuzen-zuzena dena!. Senegal, adibidez, lerro zuzen bat da. Ez dira horrela zatitu, ez; koloniek fabrikatu zituzten horrela. Eta antolakuntza politiko eredugarria duen estatua da, gainera; tutsiak zeuden, hutuak zeuden... eta bertan zeuden diamanteak eta petrolioak ere...

Bistan dago! Horrelako lehegailuak fabrikatu eta lehertuko ez direla pentsatzea inozokeria itzela da. Mundua izozturik mantenduko duen gerra hotzak betiko iraungo duela pentsatzea, serbiar, bosniar eta kroaziarrek betiko "jugoslaviarra naiz, jugoslaviarra naiz" esaka eduki nahi izatea... inozokeria da, edo maltzurkeria, bestela. Izan ere, guztiek gogoratuko dute aitaita deportatu zutela, edo antzeko beste gauza guztiak... Gaur munduan jazotzen ari den guztia urtze soila da; eta zentzuzkoa da horrela gertatzea. Zentzuzkoa da gauzek zeuden tokira itzuli nahi izatea, bonba atomikoa edo gerra hotzaren blokekako politika bezalako mehatxurik jadanik ez dagoenean.

Pensar que siempre habrá una guerra fría que tendrá congelado al mundo, que haga decir a serbios, bosnios y croatas "yo soy yugoslavo", es una ingenuidad, o una maldad

Eta hona hemen hirugarren ondorioztape-na: Estatuak, lehergarri bihurtzen duen sus-trai bikoitza eta arriskugarri egiten duen eginkizun bikoitza izateaz gain, legitimazio edo zilegitasun bikoitza ere badu, izugarri, ezin ahaltsuago, bihurtzen duena.

Indarkeriaren eta ongintzaren monopolioa

Har dezagun, une batez, psikologiaren haria. Jende askok honela definitu du esta-tua: "zilegizko indarkeriaren monopolioa duena". Egon daitezke mafiak, ETAk eta edozer, baina zilegizko indarkeriari dagokio-nez, estatuak du monopolioa. Ekar deza-gun, adibide gisa, Stockholmeko sindrome deitu zitzaion hura, hau da, bahituak, azke-nean, bahitzailea maite egiten duela zioena. Edo, urrunago gabe, zeuri ez al zaizu ger-tatzen, Trafikozain batek gerarazi eta joaten uzten zaituenean, bera maite izatea? Nik neuk maite ditut, ahoan ere emango nieke musu, jaun horrek ez duelako niregan era-bili bere boterea. Boteretsua beti dabil niri bizia barkatzen.

Stuart Mill-ek hauxe azaldu zuen erromata-rreri buruz mintzatzean. "Erroman, patrizio bat zoritxarrean jausiz gero, esklaboak tinko azaltzen ziren haren defentsan, haren seme-alaba eta berdinkideek beraren heriotza eskatzen zutelarik". Eurak hil ahal izanik hil ez zituenengan boteretsu horrekiko menpe-kotasuna sortu zen. Indarkeriak zilegitasuna ematen du; horregatik, maitasun mota bat sortzen du, psikologoek "faloarekiko maita-suna" deituko luketena.

Estatu modernoak antzinakoak ez zuen gauza garrantzitsu bat erantsi zuen:

ongintzaren monopolioa. Ahal duen arren zigortzen ez nauen estatuak sorospidea, erretiroa eta gizarte segurantzaren sistema osoa ziurtatzen dit gainera... Arraioa! Batetik, jo ahal nauen arren jotzen ez nauen makila da eta, bestetik, babestuko nauen ama-sabela da. Aitaren eta amaren identifi-kazioaren indarra du figura horrek, faloa etaabela, umetokia eta makila... Identifikazio hori oso gogorra da.

Jomuga bikoitza eta zilegitasun bikoitza, beraz. Alderdi horien baturak izaki izugarri eta liluragarri bilakatu du Estatua. Baten batek ezetz esango du, estatua hobetu egin daitekeela. Horrek, Indiarako, balio dezake, bertan estatuak ez duelako ongile eginkizu-nik betetzen. Berton ez. Dena dago horren inguruan antolaturik: gure demografia, gure sentimenduak, gure estalldiak, gure ugalketa... mito horretan, aieru horretan, funtsaturik eratu dira. Sortzen duen identifi-kazioa, agidanez, itzela da.

Baina estatuak ez ditu bere zereginak betetzen

Oraingo egoeran, ordea abstraktutik irtenda dagoeneko, Estatuak ezin ditu eginkizun horietako asko bete. Mila modutan adierazi da Estatua jadanik handiegia dela gauza txi-kietarako, eta txikiegia gauza handietarako. Dakizuenez, politikarien artean, dirua nork ematen duen, horixe da borroka handiene-tako bat, hau da, dirulaguntza, prestazio edo beka hori Estatuak, Generalitatek, Eusko Jaurlaritzak ala Foru Gobernuak ematen duen.

Abesti hartan bezala: "María Cristina me quiere gobernar, pero le sigo y le sigo la

corriente, porque no quiero que diga la gente, que María Cristina me quiere gobernar". Kantu horrek gertatzen denaren aurrean jartzeko gonbitea egiten du, horrela zeure menpe duzula dirudielako. Argi dago, guztiz agerikoa da estatuak gertatzen ari denaren aurrean jartzen saiatzen ari direna, gertatzen ari zaien hura menpean dute-lako itxurak egitearren. Herritarrak ituna hitzartua zuen Estatuarekin; berak uko egiten dio askatasun zati bati, segurtasun juridiko, lurralde segurtasun (armada), diruaren interes tasako segurtasuna eta abarren truke. Baina hori gero eta zailagoa da; gaur egun estatuak ez dit hori guztia bermatzen: etzi pezetaren balioa ezeztatuko da euroaren alde; Espainiako Armada, zeuek esango didazue norengandik defendatzen nauen...

Beste erakunde batzuek defendatzen banaute, aita eta amarekiko identifikazioa urrituz doa. Eta hori urritzen den heinean, Estatuak areagotu egin behar du propaganda... Hain da oparoa publizitate hori, ezen estatuak "nazionalista" bihurtzen ari baitira, era harrigarrian gertatu ere. Azken bost urteetan, adibidez, Frantziako intelektual askok "republique" eta demokraziari buruz idazten zuten, nazioa jadanik eguneroko herrixka baino ez dela... Gaur, intelektual beroriek gora eta behera darabilte "la France". Gaurko egunkarian irakurri dudanez, ingelesak anglosaxoitasuna zer den berriz definitzen saiatzen ari dira. Hau entzun nion aspaldi Frantziako Kultura Ministroari: "film ingelesak, ikuskizun nazkagarri hori, kultua ez dena, ez dira pasatuko, ez dira inoiz pasatuko". Berari entzunda,

zera pentsatu nuen: Hara, katalanista bihurtu zaizkigu hauek!

Agerikoa da: gu, katalanok, katalanaren kuota defendatzen ari gara gure zinemetan. Frantsesak, eurena unibertsala zela uste zutenak, katalanista bihurtzen ari direla ohartu dira... euren babes bilatzen dute. Jakina, urriturik sentitzen dira, jadanik errentagarri ez direla hasi dira sentitzen. Orduan, Estatu babestu egin behar da, saldu egin behar da, propaganda eta publizitatearen bidez.

Gaur, auto baten balioaren %40 beraren publizitatea da. Ekoizpen kostuak beherantz eta komertzializazio prezioak gorantz doaz. Gauza bera gertatzen zaie estatuei.

Estatuaren errentagarritasuna jaisten ari da eta publizitatean inbertitzen da. Emaidazue ironikoa eta maltzur samarra izateko baime-na: estatuak nazionalista egiten ari dira, eraginkortasunaren ikuspegitik Estatuak ematen duena ezin delako justifikatu.

Dagoeneko herritarrak ez daki estatuak zer ematen dion, eta orduan Estatu bere esanahiaz, sinbolizatzen duenaz, irabazten duenaz, asmakeria nazionalizazioa hasten da... Ustez nazionalistion mintzagaia zenaz hitz egiten dute, hain zuzen ere!.

Alda dezagun egoera

Zer egin behar dugu guk, katalanistek, euskaltzaleek? "Ba, aizu, eurak nazionalista jartzen ari direla, izan gaitezen gu herritar".

Nik jadanik ez dut naziotasun katalana aldarrikatzen, ez kezkatu, nik herritartasun katalana besterik ez dut nahi. Eurek esaten zuten: herritar izan behar dugu. Kultura geroa-

El ciudadano ya no sabe qué le dá el estado, y éste habla de lo que representa, de lo que simboliza... de patrañas nacionales. ¡Habla de aquello que se suponía era el nacionalismo!



go etorriko da, ikusiko dugu zer gertatzen den. Katalana? Bai, beno, "ya parla"... Estatu garenean, boterea dugunean, ikusiko dugu orduan zer gertatzen den. Oraingo, eraginkorra...

Nire jarrera nazionalista

Eraginkortasunik ezaren adibide bat jarri eta azken puntura joango naiz, nire jarrera nazionalistara, alegia.

Unamunoren esaldi bat erabiliko dut, askotan errepikatu dudana, oso gustukoa dudalako: "Katalan hauek arantzel baten truke saltzen dute arima". Oso polita da. Oso argi dago zer adierazi nahi zuen: beren beregizko ituna dago katalan deritzen jaun batzuen (kamisetak eta horrelakoak fabrikatzen dituztenen) eta txiroagoa eta motelagoa den Estatu zentralaren artean. Unamunoren arabera, jaun katalan horiek hauxe planteatzen dute, gutxi gorabehera: "Begira, Estatu jauna, zuk Albacete eta Ciudad Realen saltzen diren galtzontzilo eta kamisetak, Manchesterrekoak izan beharrean, katalanak direla ziurtatzen badidazu arantzela eta, gainera, langileak gaizto portatzen direnean

guardia zibilak bidaltzen badizkidazu, nik uko egiten diot botere politikoari eta zuk dirua irabazten laguntzen didazu". Herri honetan, zuek ondo ezagutzen duzue jokabide hori. Uko egiten zaio botere politikoa-ri, nik ordaindu eta zuk babestu egiten nauzu. Hori eskandalutzat jo daiteke, baina ituna da, zer arraiol! "do ut des". Ez da oso itun dotorea, egia da, baina aldeen intereseko ituna da, azken finean.

Baina gaur egun, ai ene!, estatuak ez dauka ez arantzelik, ez armadarik, ez txanponik, ez inflazio tasarik... Interesei dagokienez, itunak ez du jadanik "erakargarritasunik". Horren azalpena ez da orain guztiak onak edo desinteresatuagoak direnik; beste hau baizik, itun espainiarraren erroak jadanik ez duela lehen zuen funtsa. Ildo horretan, behingoz, independentista garenek bat gatoz historiarekin, gauzen errealitatearekin... Eta une honetan geure tesiak herritar-tasunaz hitz eginez defendatu ahal ditugu. Hortaz, nire aholkua nazionalismoa ez aipatzea da.

Horrek Miamin gertatzen ari dena gogorazten dit. Kristorena da han gertatzen ari dena. Miamin anglosaxoiak harriturik geratu dira hispanoekin. Anglosaxoiek oso ondo zeritzaten okina, arropa garbitzailea edo tabernaria gaztelaniaz mintzatzeari. Anglosaxoiak "Dallaseko J.R." eta idazkari lirain eta maitagarriak egoten diren etxe-orratzetara igotzen ohituta daude. Goian anglosaxoiak egoten ziren beti.

Eta orain hispanoak ari dira etxe-orratz horietara igotzen. Anglosaxoiek, ideologia protestante kalbinista dutenek, ez dute ulertzen nolatan izan daitekeen kultura

katoliko-latindarrak zuzendaritza postuak "jaten" aritzea. Ulertuko lukete jende zintzoa abokatua izatera heltzea, adibidez, ez, ordea, Corporationeko edo Multinazionaleko burua izatea. Eta latinoen goranzko ibilbide hori ikusi duten unean, izugarri urduritu dira.

Duela sei urte hasi ziren horri buruzko liburuak argitaratzen. Badago bat, "Going to Miami" izenburukoa, gertaera horren gaineko ikuspuntu amerikarra islatzen duena. Jakina, hara joan ziren latinoak jende prestatua ziren, ez ziren kulturarik gabekoak, profesionalak baizik. Horiek kultur nagusitasuna berenganatu dute; haien seme-alaben seme-alabak ez dira jadanik Castroren aurkari sutsuak, eta horrek nahasi egin du komunitate anglosaxoia. Denboraldi bat eman nuen nik Miamin, latinoek "arazoak ditugu, ez gaituzte aintzat hartzen, hau eta bestea onartu behar digute..." esaten zute-nean. Orain, bat-batean, Miamiko latinoak "ez da ezer gertatzen, ez da ezer gertatzen" esaten hasi dira. Gazteak liburuak idazten hasi ziren, "Estatu Batuak hemen amaitzen dira" adierazten. Baina irabazten ari den taldeak, latinoak, irabazten ari dela ikusten duenean, nahiago du "ez dezagun horretaz hitz egin, hor ez dago mintzagairik; ni herritarra naiz, ni..." esan.

Historiarekin bat etorri

Logika sozial moduko bat da: historiarekin bat datorren taldea, gertakariekin bat datorrena, ondo badoakio, ezer ez dela aldatu esaten du. "Aldatu? Ez, horixe!".

Ez dut baikorregia izan nahi, baina gu, ikuspuntu nazionaletik, nazionalista izateari utzi eta haiek ustekabeen harrapatzeko aukera egin dezakegu une eta egoera honetan: futbolearen bezala, keinua egin eta beste alde-rantz jo.

Europa gaur "OPE" bat (objektu politiko ezezaguna) da: inork ere ez daki zer den. Eta baten batek dio "Euskadik Europan ez du zer eginik", beno-beno... Hizkuntza eta instituzioak gauzak baino are geldoago doaz. Oraindik esaten zaio "metxero" metxarrik ez duen zerbaiti eta "cerilla" erabiltzen dugu gaztelaniaz ezkoz egiten ez dena izendatzeko. Mundua atzerako ispilutik ikusten dugu beti. Instituzioak are motelagoak dira. "Estatalistak" nazionalista bihurtzen ari dira, propaganda egiten ari dira, ez dira justifikaturik sentitzen. Jada ez daukate uko egiteko prestu dagoen katalanik. Zergatik? Katalanak uko egiten zionari uko egitearen truke eskatzen zuena ezin diotelako eman: negoziazio arazoa da. Orduan, zertarako erreguzko mintzaira, deitorea edo oldarkortasuna erabiltzen segitu? Nire ustez, guztiz alderantziz, Miamiko kubatarrek bezala, jokatu behar dugu: "ez da ezer gertatzen, hemen ez da ezer gertatzen".

Ideia eta sentimenduetatik harago

XX. mendeak erakutsi digu, nik uste, ideiak eta sentimenduak, zalantzarik gabe, motore ona diren arren, ezin direla gure bizitzaren bolantea izan. Gauza bat da motore, eraso egin didatenean mugitzeko erabiltzen dudana: "zeure burua independentistatzat jotzen duzu, baina ez duzu, adibidez, hiz-

kuntza defendatzen...? Non dago sentimendua?

Bai, sentimenduz naiz independentista katalana. Bai, baina horretaz ez dut hitz egiten, horrek mugiarazten nau, baina ez du horrek neure mintzagaia izan behar. Nire motorea neure kidetasuna da. Pertsona talde batean subjektua naiz. Beste batzuk objektu dira: maite ditut, eskuzabala naiz haiekin, kristaua naiz eta ez dut inor hiltzerik edo ezer txarrik gertatzerik nahi. Baina horiek ez dira nitarrak, oinarrizko zentzuan. Gauzak ondo doaz, esan behar dut, nik herritartasuna aldarrikatzen dut...

Salvador Cardúsek pasadizo zoragarri bat kontatzen du, kultur identitatearen gaineko hizketa barik, independentzia politikoaren gainekoa erabili beharra argitzeko. Jendeak herritartasunaren gaineko hizketa ulertzen duen egunean, kulturaren gainekoa ere ulertuko du. Ez al da hemen gertatzen, euskarari buruzko gairen bat azaldu eta "hona hemen ETaren zerrikeria" dioen zartailua azaltzen da...

Europako eta Espainiako parlamentuetan izan nuen esperientziak eta, azkenik, Cardúsen pasadizo horrek independentismoaren aldean jarri ninduten behin betiko. Nire liburua pasadizo horretan oinarritzen da funtsean. Hementxe duzue:

Bada, emakume bat, Bartzelonan, merkatu-
ra doa kartoi bat esne erostera. Kartoi
lurrera erori, berak jaso eta honela dio:
"Gogaiturik nago; lurrera jausi, hartu eta,
buelta ematean, katalanez agertzen zaizu
eta, atzetik gaztelaniaz idatzita dagoenez,
nahaste itzela da...". Atzean dagoen gizon

batek hau esaten dio: "Ez, andre, ez da katalana, portugesa baizik". Eta andreak: "Ah!, orduan ezberdina da".

Zer esan nahi zuen emakumeak? Honelako zeozer adierazi nahi zuen "Estatu bat baduzu (nahiz eta Portugaleko Estatu irrigarria izan, espainolek mespretxuz aipatzen dutena, euren buruaz azalpenik eman behar ez izateko)..., ba hori, Estatua edukita dena da ezberdina, horrek ez nau mintzen".

Emakume hori gogaituta sentitzen zen, urduri jartzen zen, esne kartoian katalana gaztelaniaren ondoan ikustean. Zehazki esanda, horrek ez du iraintzen, baina gogaikarri suertatzen zaio. Baina portugesa bada, orduan ez da gogaikarria.

Hau da, estatu bat badugu, ulertu egingo gaituzte. Beraz, ez al da agerikoa soilik ofizialari deritzotela erreal edo benetakoa? Orduan, zertarako esango diegu "nik hizkuntza bat daukat, kultura bateko kidea naiz, nire aitaita-amamak ez dakit zer, eta Biblia bertsotan..."? Nik herritartasun katalana nahi dut, eta kitto. Diskurtso horrek ez du kultur identifikazio handirik behar; beraz, are egintza erradikalagoa eta, itxuraz, neutralagoa da.

Peter Panen sindromea


Amaitzeko, ia zuei galdetuz bururatu zitzaizkidan bi adibide aipatuko ditut.

Lehenengoa ETari buruzkoa da. Gizakiaren etsaia izateaz gain, ETA nazionalismoaren etsai nabarmena da gaur. Iraganaldian agian izan zenarekiko begirune osoz. Izugarria da.

Lizarraren ondotik, are argiago ikusten da ETA ageriko peterpanismo kasua dena. Peter Pan hazi nahi ez zuen haurra zen. Zergatik ez zuen hazi nahi? Askoz hobea delako dena nahi ahal izatea, zer ahal den eta zer ezin den erabaki behar izatea baino. Txikitan “orain ilargira, edo zinemara, joan nahi dut” esaten nuen, eta aitak ezetz erantzuten zidan; nik nahi nuen guztia desiratu ahal nuen, banekielako ez nuela edukiko. Haztea kontrakoa da, Peter Panen heriotza da, zeure buruari muga jartzen hastea. ETAn, dirudienez, independentzia lortu baino, independentzia desiratu nahia-go duen jendea dago.

Demokraziek ez dute euren perimetroari buruzko teoriarik. Demokraziek estatua lurralde baten barruan antolatzeko modua azaltzen dute, baina ez dago lurralde horren sorrera azaltzen duen teoriarik: egitatzat hartzen da, beste barik. Lurralde perimetro horiek nola eratzen diren azaltzen duen filma ez da adin txikikoentzako egokia, sexua eta indarkeria agertzen dituelako telebistan bezala. Sexu historia da, erregea, beste estatu batekin (ez beste andre batekin) “oheratzeko”, norekin ezkontzen zen azaltzen duena; edo indarkeri historia da: batek gehiago hiltzen du eta beste batek gutxiago, eta hortxe geratzen da mapako lerroa. Sexua eta bortizkeria, ezkontza edo hildako errealak. Horiexek dira mugak.

Demokraziak hauxe dio: “beno, horrela gertatu da, horrela kontatu dizugu”. Argi dago mugei buruzko teoriarik ez dagoena, baina bai dago argi, demokrazia deritzan hori dagoenetik, sistema bat badagoena. Baina



batzuek sistemarenak ez diren beste muga batzuk aukeratzen dituzte.

Horixe egiten ari dira, nolabait, Al Gore eta Bush. Baten batek esan du hori ez dela demokratikoa, baina, funtsean, guztiz demokratikoa den zerbait du. Gore eta Bush gizartea konbentzitzen saiatzen ari dira: Gorek dioenez, botoa zenbatzeko sei egun arteko epea uztea komeni da, eta Bushek bihar amaitu behar dela dio. Eta biak saiatzen ari dira ikatza nork bere opilari hurbiltzen. Horixe da demokrazia izeneko gauza nazkagarri horren kalitatea, gu geu baino lirain edo ederragoa ez dena.

Inguruabar demokratikoan goranahi politikoak dituen pertsona orok zerbaiten erdia gehi bat lortzearen zain egon behar du eta ondo zaintzen du Cardúsek aipatzen zuen andrea, esne kutxarena. Nik lortu behar dut andre horrek Katalunian, Estatu katalanean, bizi dela dakienean, ez dadila harritu gauza askorekin. Eta ziurrenik nazionalisten aldeko botoa emango du, edo agian ez du botorik emango, horixe izango baita normalena. Independentismoak jende normala erakarri behar du, Bushek eta Gorek bezala. Izan

Esta voluntad de querer más el deseo que la cosa misma, el deseo de independencia que la independencia misma, es un atentado contra los ciudadanos de Euskadi que aspiran a la independencia



ere, sistema demokratikoan erdia gehi bat edukitzea baita lortu beharrekoa.

Eta horrexek ikaratu zuen Madril, dakizuen bezala, biziki ikaratu ere. Gogoratu egin behar duzue Madrilek hartu zuen ezustekoa, egundokoa. Horra hor Peces Barba, gerra aldarriak jaurtikitzen (“Euskadiren independentzia ez da era baketsuan lortuko”), edo Felipe González (“hau Sarajevo izango da”). Hauxe esaten ari dira: pixka bat gehiago erantsiz gero, munduko beste leku batzuetan gertatzen dena gertatuko dela, hain zuzen ere ...eta eskerrak jende horrek hiltzen ez duen!.

Nahikaria baino, gauza nahiago

Espainiarren ezustekoa itzela izan zen, eta ezustekoa amaitu zen modua izugarria: su-etenaren haustura. ETak bertan behera utzi zuen espainiarren izualdia, EAJ ipurdia agerian utziz. Beno, horrela ikusten dut nik. Nik Kataluniaren independentzia nahiago dut, Kataluniaren independentzi guraria baino. Katalunia txiki erreala nahiago dut. Zertarako ezarri erabaki-eremu zabal bat, bertan sekula irabazterik ez badut?

Nik, Katalunian, Katalunia hertsia proposatuko nuke. Hori lortzen dugunean, orduant-

xe mintzatuko gara eta eratuko ditugu Paissos Catalans. Jakina eratuko dituguna!, zalantza izpirik gabe. Gainera, katalanak, munduko lehenengo turismo potentzia izango da, eta nahi ditugun gainerako tontakeria guztiak ere. Baina oraingoz, motel, joka ezazu garaipena lortu ahal duzun zelaian. Horrela, denboraz, irabazi ahal izango duzu. Eta ez ipini zeure ideien edertasuna zeure herriaren errealitatearen aurretik. Horregatik, peterpanismo hori asaldagarria da, hiltzailea izateaz gain.

Etsigarria da herri honentzat. Irakasle batzuek herri honetatik alde egin behar dutela ikustean, nik hau proposatu behar izan nuen: “Begira, neuk hartzen dut herri honetara etorri eta alde egiten duen jendearen ordezkariak emateko konpromisoa. Baina egunero jardungo dut ETaren kontra, nazionalismoagatik, nazionalismo hertsia- gatik”.

Nahi al duzue ni hona etortzea? Batzuk badoaz; ba neu etorriko naiz nazionalismoaren suspertzera, ETA egiten ari dena nazionalismoaren aurkako jardun zentzugabeena dela errepikatzen egunero. Gaur egun hala da eta.

“Bekatua baino okerrago, huts-egitea da edo huts-egitea baino okerrago, tontakeria da”, badaukazue hori zioenaren berri? Ba, nolabait, gauza baino ideia gurago izate hori, edukitzea baino desiratzea nahiago izate hori Euskadiko herritarren aurkako atentatua delakoan nago, batez ere herri honen independentzia lortu nahi duten euskal herritarren aurkakoa. Eskerrik asko.

Irakurgaiak




De la identidad a la independencia: la nueva transición

Xavier Rubert de Ventós
Anagrama argitaletxea. 1999

Rubert de Ventósek, nazionalismoa edo nazioa sendatu beharreko “gaixo” bihurtzen duen identitate aldarrikapenez nekatuta, independentzia “baka-

rrik” galdatzea proposatzen du, birmoldatzeko zorian dauden eta gero eta nazional, identitatezko eta nostalgikoa goak diren estatuak ezarritako “ordainleketan” gelditu behar izan gabe. Pasqual Maragallek hauxe dio obra honen hitzaurrean: “Espainiako zein Kataluniako nazioetako soberanista puru guztiei eta federalista orori ere, Rubert gezurtatzeko proba egin dezaten, egin dezagun, proposatzen diet, ...ahal badute... ahal badugu?”



¿De la identidad a la independencia?

Xavier Rubert de Ventós
Manu Robles-Arangiz Institutua.
ELAko X. Kongresuaren aurreko hitzaldi zikloarentzako prestaturiko material lagungarriak

13. dokumentua. 2000.eko azaroa

Xabier Rubert de Ventósek 2000ko azaroan egin zigun bisitaldiaren zioz, Manu Robles-Arangiz Institutuak haren artikulu batzuk eta beraren liburuetako aipamen batzuk argitaratu zituen. Oraindik badaude ale batzuk pentsalari original eta ikonoklasta hau sakonago ezagutu nahi dutenen eskura.



Nacionalismos: el laberinto de la identidad

Xavier Rubert de Ventós
Espasa argitaletxea. 1994

Zein da nazionalismoak eta aldarrikapen etniko zein erlijiosoak Berlingo harresia bota ondoren, guztiok izozturik gintuen gerra hotz horren ondoren, ugaritu izanaren zergatia eta sorburua?

Idazlearen ikuspuntutik “erreprimutaren itzulera” da: herritartasuna bere manupekoen edo bere kolonien amnesia oinarritu nahi izan zuen estatuak erreprimutakoaren itzulera, alegia.

Liburuaren bigarren zatian, Rubert de Ventósek nazionalismoen taula erkagarria alemaniar, islamiar, katalan eta abarrena marrazten du. Egilearen esanetan, sarritan erraietatik irteten zaiguna buruaz aztertzean datza.



Oharrak

A series of horizontal dotted lines for writing, spanning most of the page width and arranged in approximately 30 rows.